

# Intoleranteak eta lerdoak

Joxe Azurmendik 'Espainolak eta euskaldunak' saiakera kaleratu du Elkar argitaletxearen eskutik

**J**oxe Azurmendi pentsalariak 1976an idatzi eta iaz osatu, jantzi eta berridatzitako saiakera bat dakarkigu oraingoan. Penintsulan bizi diren herrien arteko arazoek gaia, intolerantziaren kultura historikoa, jartzen da mahai gainean, liburu mardul honekin.


LOREA AGIRRE / DONOSTIA

Atzo aurkeztu zen Joxe Azurmendiren azken liburua prentsaurrekoan. Autoreaz gain bertan ziren Joseba Intxausti historialaria eta Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeko arduraduna. Joseba Intxaustik adierazi zuenez, bai euskaraz eta bai erdaraz, gai honen inguruan kaleratu den libururik aberatsena eta osatuena da honako saikera hau. «Hau zerbait bada antologia airoso, bizi eta gaurkotu bat dela esango nuke —adierazi zuen Intxaustik—. Eta gutaz esan diren hainbat gauza biltzen dira modu bizkor eta zorrotzean, pentsamendu baten harian eramanek. Eta hori jakitea interesgarria da, 'gure gezuraren egia' ezagutuz joatea komeni zaigulako».

Espainolez, latinez, frantsesez edota italiano, zuzenean idatziriko aipu, pasadizu, kontu eta txistez josita dago —autoreak definitzen duen gisan— «insultorio» hau. Joxe Azurmendik 1976an idatzi zuen saiakera hau, baina orain arte ez du argirik ezagutu. Material bilketa izugarria ageri da, bai eta idazlearen literatur jolasa ere, idazlearen ustez «saiakera literatura baita». Errenazimendua, gaurko Europako herrien bilakaera ulertzeko ezinbesteko garaia dela dio Azurmendik eta garai horretara jo du liburu hau idazteko.

**EGUNKARIA.**— Hitz gutxitan esateko liburu mardul honetan zein da azaleratzen den ideia?

**JOXE AZURMENDI.**— Batetik espainolak intolerante batzuk direla eta euskaldunak tonto lerdo batzuk direla. Eta bien artean euskal kultura borrokatu izan dute. Ondorioa gaurko Euskal Herria da. Liburuko orrialde mordo bat 'insultorio' bat da, nola espainolek euskaldunak insultatu izan dituzten, bereziki XVI eta XVII. mendeetan, eta lehenago ere. Euskaldunak insultatzeko tradizio egina zegoen Erdi Arotik aurrera eta hori jasotzen da liburuan. Ondoren, euskaldunen mitoak jasotzen dira. Mila aldiz burla egiteko aipatu izan zaizkigun mitoak: euskaldunak Noeren ilobak garela, paradisuko hizkuntza euskara izan omen zela, erromatarrek ere ez zituztela euskaldunak menperatu... Euskaldun harroaren mitologia bat dago eta horregatik burla egin izan di-



«Espainian euskaldunak insultatzeko tradizio egina zegoen Erdi Arotik aurrera eta hori jasotzen da liburuan».

ANDER GILLENEA

gute. Mito hauek, euskaldunok espainolei ikasi dizkiegula erakusketa da. Mitologia guzti hau Errenazimenduan oso arrunta zen eta garaiko literatura frantsesa edota italianoa aztertuz gero topatzen da material guzti hau. Hau da, espainolek, euskaldunak esan baino lehen euskara izan dela muduko hizkuntzarik zaharrena, espainolek esan zuten espainola izan zela; eta espainola latinaren alaba baizik, latinaren ama dela; eta grekoa frantsesek asmatu zutela; Erroma noski espainolek fundatu zuten eta beraz, zibilizazioa, kultura, zientzia eta artea espainolek sortu zituzten, euren ustez eta frantsesen ustez berriz, eurek sortu zituzten. Mito hauek orri orri jasotzen dira.

**EGUNKARIA.**— Beraz euskaldunak mito horiek kopiatu eta bereganatu zituzten.

**AZURMENDI.**— Orain egiten dugun gauza bera egin zen kasu horretan, besteen liburuak irakurri eta kopiatu. Salamancara edota Bolognara joan ikastera eta han esaten bazuten «gu zaharrena gara», guk erantzun «ez, gu zaharrago» eta «gu handiago gara» eta «ez euskaldunak handiago». Mito hauek euskaldunak baino lehen espainolak ziren.

**EGUNKARIA.**— Eta hori zer dela eta gertatzen da?

**AZURMENDI.**— Guzti honek funtzio garbi bat du. Euskaldunak mito hauek asumitu dituzte, hain zuzen inperioan integratu ahal izateko. Apologisten mundua, mundu inperiala da. Apologismo eda mitologia famatu honen ideia honako hau izan da: euskaldunak nobleak ziren, beraz

erregearen zerbitzari leialak izan zitezkeela eta erregearen eta inperioaren morroi bezala pribilegiatuak ere izan zitezkeela. Horixe erakusteko ahalegina da, gaur egun ere jarraitzen duena. Alde horretatik liburuan badago inplizitoki oraingo politikaren kritika bat ere. Baina batez ere historiaren meditazio bat dago, nahiko negatiboa gainera. Euskal Herriko historian bi konstante ditugu. Bat gure jauntxeria Madrilerara begira dagoela beti hangoi nola gusto eman; Madrildik elikatzen da, Madrildik ikasten du eta Madrilen eduki nahi du bere eszenariotxo komeria egiteko. Eta egiten du komeria, eta hau da bigarren konstantea, erri-dikulua egiten du. Madrilek bere interesak dauzka eta hain zuzen interes horietan euskaldunak ez du paperik eta euskaldunari gertatzen zaiona da Madrilek daukan interesetan parte hartzea.

**EGUNKARIA.**— Inperioan parte hartu nahi izateak dakar beraz guzti hau?

**AZURMENDI.**— Nolabait handikeriazko edo harrokeriazko ideologia batetik funtzionatzen duen euskaldunak, alegia, inperio batean parte hartu nahi duen euskaldunak, etxetik kanpo bakarrik har lezake parte eta beraz bere etxea abandonatu egiten du. Handi izateko asmoz handiaren morroi txiki bihurtzen da. Baina ez dago handiaren morroi txikirik baino gauza kaskarragorik. Handikeriazko eskemetan funtzionatzea, gaurko euskal kulturaren eta politikan oso urrutira joan gabe ikusten dugun gauza da.

**EGUNKARIA.**— Beraz bide zu-

zena kontrakoa izango litzateke. Etorkizuneko pentsamendu horretan aldameneko herri hori, Espainia, ahaztu eta bide propioa jorratu beharko litzateke.

**AZURMENDI.**— Euskaldunari gertatzen zaiona mundu honetan da bere buruari begiratzea eta bere buruarekin pozten jakitea, bai eta bere miseriekin ere. Gutxi gara eta txikiak gara, beno ba poztu gaitezen gure txikitasunean. Bere burua eginez parte hartzea munduaren ederrera, ez handitasunerako. Herriak pertsonak bezalaxe, beren buruaren onarpenaz bakarrik erretratzen dira, bestela eskizofreniko bihurtzeko arriskua dago. Besteak adina izan nahi eta besteak bezain inbezilak izan gara. Hori da gure tragedia.

**EGUNKARIA.**— Mitoak deusezte horretan, bai Aranzadik eta bai Jon Juaristik ere idatzi izan dute, baina beste intentzionalitate politiko batekin. Zure lana gauza bera al da?

**AZURMENDI.**— Nik uste dut ez dudala lan bera egiten arrazoi batengatik. Bai Aranzadi, bai Juaristiren lanetatik molestatzen didana zera da: historia falsifikatzen dutela. Gertaera bat isolatzen duzunean eta hori herri baten gauza espezifiko hartzen denean, historia falseatzen ari da. Karlismen garaiko euskal mitoak aipatzen badira, horren aurreko arrazoirik eman gabe, historia falseatzen ari zara. Nik alderantziz egiten dut. Datu bera hartu eta kontestualizatu ondoren irakurri egiten dut. Nondik datorren, zer esan nahi duen eta zergatik esan nahi duen hori kontutan hartu behar da.

## Historiaren problemak

• Eta, gainera, orainarekin enplegatutik dabilenak, oraina eta orain artekoa irauli nahita dabilenak, historia paseari ez dio kontserbazale batek adina begiratzen. Etorkizunean ikusten ditu bere arazoak. Ez iraganaldian.

Hori da kontua: Euskal Herriak ez du iraganaldi hobe behar. Etorkizuna behar du hobe.

Historia asko, ordea, iraganaldi hobe bat emateko bakarrik egin zaigu. Historia «abertzalea» batez ere.

• Gaurko errealtatea hau da: zaila dela euskaldun izatea. Euskaldun izan nahi izatea. Eta ez gutxi garelako, laguntasun gutxi dugulako, eta abar, bakarrik. Euskaldun izaten enpeinatze motibaziorik finkatzea da zailena. Euskaldun izateak merezi duela, erakutsi egin behar da Euskal Herrian. Ia beste inon egin beharrik ez dagoena.

• Euskaldun izatea, soil-soil euskaldun izatea alegia, ez izatea hobe den gauzaren bat da benebenetan. Alegia, merezi du Espainiaren edo Frantziaren oherako euskaldun izatea. Baina ez, euskaldunaren ohorerako euskaldun izatea. Euskaldun ona, espainol edo frantsesaren akzidente eta osagarri huts dena, da.

Pasarteok Joxe Azurmendiren 'Espainolak eta euskaldunak' liburutik aukatutakoak dira (559-563 or.)